Hor kanpoan ez dabil inor.
Hemen barruan ez da ezer falta.



GAUPASA KLUBA

IRATI JIMENEZ

narratiba
erein

GAUPASA KLUBA

narratiba • 171

erein

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko azaroan

Azalaren diseinua:
Ivan Landa
Maketazioa:
Asier Beltza
© Irati Jimenez
© EREIN. Donostia 2026
ISBN: 978-84-1093-139-8
L.G.: D 797-2026
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

GAUPASA KLUBA



IRATI JIMENEZ



erein

Mikeli,
Gaupasa Klubaren lehenbiziko kide,
kidoin eta kapitainari,
gau ilunetan argiak piztuta eta
suak bizirik mantentzeagatik.
Eta fedea galdu behar nuenean,
ez nuela galdu behar gogoratzeagatik.

Eta Klubeko azken kideari,
maitasun berri batekin gure maitasun
guztiak berritu dituenari.
Enekori, gure timonel txikiari.

«Badago erromantze bat,
gauean kanpoan dabiltzan guztien artean».

Robert Louis Stevenson

Vostok Bat

Ez da ezer entzuten, ez dabil inor.
Goizeko laurak dira, eta dena dago geldi. Baina zuk eta nik ez daukagu ohera joateko gogorik. Lotan dago hiria, hanka puntetan mundua, eta sofan gaude gu, ostirala berandutzen, eternitateraino. Kanpoan otsaila da eta hotz beltza egiten du, hotz beltza eta argala, txakurrak hiltzeko modukoa. Hor kanpoan ez dabil inor. Hemen barruan ez da ezer falta. Ordu batzuk barru galdu egingo dugu, baina orain eta hemen, geurea da mundua eta elkarrekin pasatu dugun gau bakoitzean bezala, hasi baino ez gara egin. Zuk eta nik ez dugu inoiz elkarrekin egotea baino garaipen handiagorik lortuko.

—Kontatuko didazu berriz, laztana?

Mahai gainean edalontziak hutsik daude, hautsontzia beteta. Apur bat barregarri zaude, garagardoaren aparra begietan, kaletik ekarri duzun kapela buruan. Zikin zegoen, tabernan botata. Merke itxura zeukan, zerrautsa, zapaten markak. Bisera laburra. Aingura bat marraztuta. Marinelez janzteko josia zirudien, inoiz marinel bat ikusi gabeko

norbaitek. «Ez duzu jarriko», esan dizut, jantziko zenuela jakinda, kakaz beteta egonik ere. Mozorrotzeko aukera dagoenean ez dut uste inoiz ezetz esaten ikusi zaitudanik. Arima ugerra daukazu, kapitaina.

—Kontatu zer?

Gutxitan erretzen duzu. Ezohiko ikuskizunen xarma dauka zure zigarro horrek. Zorionez, oraindik ez dute asmatu tabakoaren kontrako propaganda guztia ezabatzeko modua. Bestela pelikuletan bezala erretzen duen jendea debekatuta egongo litzateke eta bakarrik nengoke sofa honetan, entzun nahi dudan istorioa kontatuko didan inor gabe. «Berriz?», galdetu didazu eta nik baietz esan dizut, kontatzeko berriz.

—Mesedez.

Beti hasten zara modu berean. «Juri Gagarin komandantea» esaten duzu, eta horregatik maite zaitut, azalduko ez dizkizudan motibo guztiak hasiera horretan kabitzen direlako, hiru hitz horietan, «Juri Gagarin komandantea».

—Juri Gagarin komandantea 3500 hautagairen artean aukeratu zuten. Beste hiru ere iritsi ziren azken fasera, denak bikainak. Baina bat hautatu behar zuten eta berak bi abantaila zituen: nota altuena eta altuera txikiena.

A, bai. Txikia izatea inportantea zen. Kontatu zergatik, laztana.

—Metro bat eta berrogeita hamazazpi zentimetro zituen eta lurretik atera eta lehen aldiz munduari bira oso bat emango zion *Vostok 1* espazio-ontzian oso leku gutxi zegoen. Gizon handiago bat ez zen kabituko. Baina ez dakit

existitzen ote zen Sobietar Batasunean Juri Gagarin komandantea baino gizon handiago bat.

Egun hartako argazkietan ikusita, inork ez du imajinatzen Gagarin txikerra zenik, hain zen handia egin behar zuena. Baina hala zen. Mundu osoan zehar egin zuen biran gehiago nabaritzen zaio, Fidel Castrorekin eta beste gizon altu askorekin ikusten duzunean. Baina horretarako izar bilakatu behar zuen oraindik, izarren artean bidaia eta izena egin behar zituen. Horren aurretik, begi urdinak zituen pilotu ezezagun bat zen Gagarin, bere bizitzako egunik inportanteenean.

Asteazkena zen, beti esaten didazu asteazkena zela.

—Asteazkena zen. Apirilaren 12a, 1961. Aral itsasotik berrehun kilometrora, Syr Darya ibaiaren ondoan, Tyuratamgo hiriaren inguruan. Kosmodromoaren izena, Baikonur. *Vostok 1* espazio-ontzia izen bereko kohetean sartuta zegoen eta jaurtiketa goizeko seiak eta zazpian hasten zen.

Gutxienekoa da noiz edo nola ikasi zenituen buruz xehetasun horiek guztiak. Eskolako lan baterako erabili behar izan zenituela esan zenidan behin. Grafiko batzuk egin behar zirela eta klasean azaldu. Espazioko edozein kontu liluragarri topatzen duten ume horietako bat zinen. Oraindik ere bazara.

—Zientifikoek lurretik eramango zuten ontziaren kontrola. Lurrazaletik zazpi kilometrora ontziak berez ejektatuko zuen komandantea. Hiltzeko prest egoteaz aparte, Gagarinek ez zuen asko egin behar. Irratiz hitz egin, bizirik iraun. Besterik ez. Ondo entrenatuta zetorren, burua

argi zeukan. Bazekien beste askoren meriturik gabe ez zela han egongo. –Tarteka zigarroaren kea botatzen duzu eta astiro desegiten da, gelako isiltasunean–. Ontzira sartu baino lehen, zalantzarik egin bazuen grabatu ziren irudietan ez da ikusten. Abiatu baino lehen, bere komandanteari agur esan zion eta barrura sartu zen.

Ezpainetan eman zioten musu elkarri. Beti iruditu zait ohitura eslaviar eder bat, militarren artean ere musu ematearena. Samurtasuna, gizalegetik haratago.

—Hegaldian zehar ezizen bat izan zuen, berak eta ontzia eraman zuten beste bi operadoreek. Gagarin *Kedr* izango zen, zedroa, Siberiako pinua. Lurretik laguntza emango ziotenak *Zaryá*, goizaldea, eta *Vesna*, udaberria.

Aldaketa txiki batzuekin istorio hau euskaraz kontatu zitekeen. Izei komandantea Bostok Bat ontzian abiatuko litzateke. Goizalde eta Udane operadoreek Baikonur kosmodromotik gidatuko lukete ontzia. Gure pilotuak segundo gutxitan zeharkatuko luke Magallaes itsasartea, Getariako kapitain baten lekukoa hartuta. Munduko biren bitakora kaieretan lau mendetik gorako aldearekin agertuko lirateke eta kontrako noranzkoetan. Lehen bidaia, itsasoko urak zeharkatu zituena: Sevillatik abiatu zen Ekialdeko Indietara, Atlantikoan zehar. Bertakoek *Tierra de Fuego* deitzen dioten lurraldetik behera izotzari leku hartu zion, laborrizko kontinente zuria ababorrera utzita heldu zen Indiako itsasora. Han galdu zuten kapitaina, hainbat gizon eta itsasontzi bat baino gehiago. Espezien uharteetan egon ziren, Moluketan eta Filipinetan. Afrikari buelta osoa eman behar izan zioten.

Hamazazpi gizon iritsi ziren bizirik Guadalquivir ibaiaren estuariora. Hiru urte eta ia hilabete bat behar izan zuten. Juri Gagarinek 108 minutu, kontrako norabidean.

Baina kontatu zuk, zuk kontatzen duzunean gehiago gustatzen zait.

—Gagarin Lurretik kanpora jaurti zuten momentutik, hogeita bost minutu behar izan zituzten orbita egonkorra zuela konfirmatzeko. Ia ordu erdi, arnasari eusten.

Ez da erraza imajinatzea. Ontzi bat bidali duzu lurretik kanpo. Gizon bat doa barruan. Baina ez du berak gidatzen. Zeuk gidatzen duzu. Zeurea da norabide egokian doala bermatzearen ardura. Ez baduzu asmatzen, Lurraren kontra bidaliko duzu edo, okerrago, espazioaren barrenera, metalezko kapsula batean kabitzen den oxigenoa ahitzen den bitartean bizitzera kondenatua. Eta gero, betiko geratuko da hor goian, kutxa barruan hilda, munduko hilerririk handienean eta hutsenean.

Zigarroa bukatu zaizu, hautsontzian geratu da zigarrokina, gaizki itzalita, oraindik ke apur bat dariola. Zure ahotsa bezala.

—Orbita konfirmatu zutenerako, *Vostok 1* Sobietar Batasuna atzean utzita zegoen eta ilunpetara abiatua zen, eguzkirik gabeko Lurraren partera, Ozeano Pazifikoan barrena. Goizaldearekin batera iritsi zen Gagarin Hegoaldeko Ozeano Atlantikora.

Magallaes itsasartea olaturik topatu gabe zeharkatu zuen. Ez zuen hotzik pasatu, ez zuen izotzik kraskatu behar izan. Ordura arte inork ikusi gabeko ozeano abisalean

zegoen, munduko beste guztiak tanta baten lekuan kabitzen ziren. Leihatilatik ikusten zuena itsasoaren iluntasuna baino beltzagoa zen, eta isilagoa. Ezin dut imajinatu, etxe honetan, goizaldea intuizio bilakatu zaigun ordu ilun eta mutu honetan, nolakoa zen gizakioi lehen aldiz erakusten zitzaigun hustasun berri hura, ezelako zaratarik gabea. Eta hotza, nola imajinatu inoiz berorik ezagutu ez duen hotza?

Beharbada, sofatik altxatuko bazina. Orduan sentituko nuke, beharbada, tamaina horretako hotza. Baina ez dezagun frogatu, laztana.

Betazaletan pisua duzu, logura falta begiradan.

—Ozeano Barea zeharkatu ondoren etorri ziren arazoak. Afrikan barna, Angolako mendebaldeko kostaldea zeharkatzerakoan. Lurrera itzultzeko norabidea aldatu behar zen eta ontziak indarra behar zuen. Bestela atmosferaz kanpora bueltak ematen geratuko zen, eternitate guztian. Nabearen sistema automatikoak koheteak piztu behar zituen bultzada lortzeko, eta ontziaren parte bat askatu egin behar zen, atmosferara sartzerakoan sutan hasiko ez bazen. Hegaldiaren momentu kritikoa zen, kosmodromotik ontziari koheteak pizteko agindua eman zitzaion. Atzeraka egin zuen, indarrez. Atmosferarekin lerrokatu zen, sistema automatikoak ez zuen akatsik egin. Etxera bidean zegoen. Ikusten ez bazuen ere, han behean Angola zegoen. Zortzi mila kilometro lur hartzeko. Eta oztopo nagusi bat. Atmosfera zeharkatu behar zuen, ahal balitz surik hartu gabe.

Barkatu, laztana, eten txiki bat, bat baino ez. Neuri kostatzen zait zeuri baino gehiago, baina edalontziak hutsik

daude eta oraintxe konturatu naiz, oraintxe, atmosferara sartu garen une kritikoan, garagardo gehiago behar dugula, sukaldea hortxe dagoela eta joan egin behar naizela. Joan eta etorri, minutu bat baino ez da izango. Tira, minutu eta erdi, beharbada. Zutik jesarrita baino mozkorrago nago eta. Hozkailura joan, azken botilak hartu eta hementxe nago, orain bai, orain entzuteko prest. Sentitzen dut, laztana, baina *Vostok 1* espazio-ontziak ez du azken pieza hori askatu eta horrek esan nahi du komandantea hor goian dagoela, ikusten ez dugun lekuren batean, kapsula ezin kontrolatu, atmosferara ezin sartu.

Baina kontatu zuk. Zeuk kontatzen duzu hobeto.

Kontatu zenbat denbora egon zen Gagarin horrela. Hamar minutu inguru. Eta nola. Biraka ontziaren barruan, ezin askatu ainguraketak. Kontatu ezin ziotela kosmodromotik laguntzarik eman eta denen buruan galdera berbera zegoela, horrela hilko ote zara, Juri Alekseievitx Gagarin, etxekoentzat beti *Jura* izan zarena? Hamar minutu luze egin daitezke arrainontzi hermetiko batean sartuta, zure planetatik kanpo, oxigenorik gabe hilko zarela pentsatzen duzun bitartean. Zorionez, atmosferara sartzean sortzen den tenperatura igoerari esker, ontziaren ainguraketa askatu egin zen eta azken oztopoa libratuta, Gagarinek Lurrerako norabidea hartu zuen.

—Mirariz izan zen, beroari esker.

Irribarrea dario zure begiradari eta ia negarra nireari, geu ere, laztana, mirariz atera garelako bizirik, geure oztopo guztietatik, eta geure miraria ere beroari esker gertatu delako. Beroaldi batean ezagutu ginen, akordatzen? Beroaldi batek

urtu zituen beldurrak, gure artean jarritako aitzakia arrazoitu guztiak. Afrikako erdialdean baso ilunak topatu genituen eta mendikate garaiak ere bai. Saharako mortu zabalak zeharkatu genituen, atzean geratu ziren Nilo ibaiaren bi aldeak eta Ekialde Hurbileko hiri sakratuak. Gagarinek bezala, guk ere arazoak izan genituen balazta sistemarekin eta geuk ere ez genuen programatutako tokian lurra hartu. Baina momentu batetik aurrera grabitatea genuen alde: saihetsezinak ginen.

Garagardoa bukatzen ari da. Ez dakit ez ote den goizaldearen argia, han urrunean ikusten den urdintasuna. Laster ohera joan behar garen seinale eta laster ez bada, egunen batean. Jausgailua zabaltzeko unea, laztana.

—Itsaso Beltzaren inguruan, lurretik zazpi mila kilometrora, kapsulak pilotua kanporatu zuen eta Gagarinek paraxutarekin egin zuen bidaiaren azken partea. Sobietar Batasunean lurra hartu zuenean inork ez zuen agurtu, balaztarekin izandako arazoen erruz kosmodromotik uste baino urrunago zegoelako. –Azken parte honetan beti egiten duzu irribarre–. Andre zahar batek eta bere ilobatxo gazteak ikusi zuten, beste inork baino lehenago.

Istorio harrigarri batentzako bukaera polita da. Amona bat eta bere iloba, atsoa eta neskatoa, paseoan dabiltza eta hara non ikusten duten traje laranjadun gizona, jausgailuari tiraka, CCCP letrak dituen kaskoa eskuan. Neskatoak galdetu omen zion, ea espaziotik ote zetorren.

—Baietz erantzun zion Gagarinek, espaziotik zetorrela. Ez zuenez umea larritzerik nahi, «sobietarra naiz» argitu zion. Badaezpada.

Edozer esan zezakeen. Juri Gagarin komandante txikiak umeak lasaitzeko moduko irribarre zoragarri bat zeukan. Gerra hotza berotu zezakeela esan zuten eta arrazoia zeukaten. Hori ez zenidan zeuk kontatu, neuk irakurri nuen nonbait. Beste guztia zeurea da. Zeugatik dakit espazioan zerbait jateko agindua zeukala. Zientifikoek bere gorputzak zer egingo zuen jakin nahi zuten. Munduak, berriz, zer zeukan bihotzean, zer sentitzen zuen. Beldurtuta zegoen? Ikaratuta? Pozik?

Espazio-ontzira sartu baino lehen, Gagarinek mezu bat grabatu zuen, begira zituen guztientzat.

Humanitate osoarentzat.

Inoiz pentsatu dut zer esango nukeen une horretan. Nola aukeratzen da berba bat edo beste bat, handik ordu batzuetara hilik edo bizirik egongo zaren jakin gabe? Ez da erraza izan behar, zerbait idaztea, historiak ahaztuko ez duela jakinik, itsuak ere begira dituzula, berriro jaioko ez diren hildako guztiak eta oraindik jaiotzeke daudenak. Hor daude, zuri begira. Idatzi egin behar duzu. Mezu bat eskatzen zaizu, hil aurreko hitz batzuk, munduko biztanle guztiak hunkitzeko mezu bat. Historia hanka puntetan dago, mundua arnasari eusten. Zinikoak ere hor daude. Gaur umeak zirela gogoratzeko prest, zeruari begira gaudenon anaitasun honetan. Aurrera, komandantea. Idatzi eta grabatu mezu bat guretzat. Zeurea da isiltasuna.

Presio handiegia sentitzen baduzu, pentsa gero trajea jantzi behar duzula, entrenamenduan irakatsi dizutena errepasatu behar duzula, metalezko kutxa batean sartu behar zarela eta

inork ikusi gabeko abismoan bidaiatu, bizirik aterako zaren jakin gabe. Horren aldean idaztea erraza izan behar da, eta zorionekoa.

—Zuk zer idatziko zenuke?

Oraintxe konturatu naiz inoiz ez dizudala galdetu. Ez dakit galdera txotxoloa den edo okerrago, inportantea. Zorionez, barre egiten duzu. «Nik?», diozu zeure buruari seinalatuta. *«Ni idea»,* batere garrantzirik ez balu bezala. Beharbada ez dauka.

—Eta zuk, Peggy Sue?

Bale, orain ez daukat zalantzarik. Galdera txotxoloa zen, ganorabakoa, delirantea. Zer esango nuke ez naizen pertsona bat izatea eskatuko lidakeen beste norbaiten lekuan banengo, neurea ez den ausardia imajinaezin baten jabe banintz, eta hartu ezingo nituzkeen erabakiak hartu banitu. Batek daki. Ni ez naizen beste horrentzako galderak dira eta sofa honetan gu bakarrik gaude, gaueko azken biztanleak, lehenago edo geroago hustasun kosmikoan galduko garen bidaiariak. Zurekin beste tarte bat nahi dudala. Hori esango nuke, hustasun kosmikora abiatu baino lehen, aukerarik izango banu.

Badakit eternitateak ez duela gurekin salbuespenik egingo eta konforme nago, momentu honetan, orain eta hemen, sofa honetan, etxe honetan, gaupasa klub honetan, benetan konforme nago horrekin. Oraindik badugu denbora munduari buelta batzuk ematen jarraitzeko eta horretarako ez ditugu behar Juri Gagarinek aukeratu zituenak baino hitz hobeak.

«Lagun maiteak, ezagunak eta ezezagunak, nire aberkide maiteok eta munduko jendarte osoa: datozen minutuetan espazio-ontzi boteretsu batek unibertsoaren espazio urrunetara eramango nau. Zer esan dezaket bidaia hasi aurreko azken minutu hauetan? Iruditzen zait nire bizitza osoa momentu bakarra eta ederra dela. Egin eta bizi izan dudan guztia une honetarako egin eta bizi izan dudala».

| Aurkibidea |

Vostok Bat | 11

Itsaso nabar honetan | 23

Gezurrak hezurra balu | 53

New Jerseyko istorio bat | 63

Sara Winchester, Zeruetan zarena
(Eibarko urbanismoaren azalpen labur bat) | 87

Gaupasa Kluba | 113

Luis Cernuda, Mexikoko errebaletan | 121

Maldan behera | 145

Egunen batean, oilaritean | 173

Albaniaren konkista | 219

«*Nabarra*ren hondoraketa
eremuan dauden ontziei…» | 239